

Goierri tarra

319. zenbakia 2007ko apirilak 20

Goierriko Bertso-Eskolak 25 urte

BADATOZ KIMU BERRIAK



TRUK

moda eta osagarriak

UU07

Udaberria
Uda 2007

Nafarroa etorbidea, 31
Beasain Gipuzkoa
T 943883545

ERBONE

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Endika Igartzabal

Udaberria?

Udaberria aurtan
ez da horren bare
hobetzen ari dela
dirudi halaere
Kukuaren kantua
jarriz parez-pare
dirua poltsikuan
ta zenbait mirabe
badaki noiz etorri
inork esan gabe.

Hainbeste eztabaida
klimaren kontura
lehortea zen eta
nolako ardura
jendearen iritziz
gertuegi uda
orain gainezka degu
soberan da ura
inoiz ez du egiten
guztion gustura.

Doinua: "Lagundurikan danoi"

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

**Urbialde plaza, 7 - behe
BEASAIN**

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56
943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Bittor Gorria.

5. Ingurugiro txokoa: Zer da
udaberria?

6. Euskara txukuntzen: Nola... -(e)n.

8. Errezeta: Ziakerba orri-mamiaren
hostopilak mariskoarekin.
Aholkua: Geure bizilekua.

10. Kate motzean: Ixidro Sukia,
artzaina.

12. Erreportajea: Goierriko Bertso-
Eskolak 25 urte.

20. Elkarrizket: Pello Olariaga
txerri hazlea.

24. Elkarrizketa: Ibon Arregi kart
gidari beasaindarra: zitzu bizian.

28. Non zer?

32. Iragarki laburrak.



EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Bittor Gorria

www.kuku@udaberri@.net

Hartu al duzue aurtengo kukuaren mezu berria? Oraindik hartu ez baduzue, itxi interneta eta segi mendira kukuaren dei alaia entzun bitartean... Patrikan dirua hartu beharrean, hobe dugu zoriontasun eta optimismo piska bat hartzea... ea urte guzira, dirua bezain beharreko ditugun, harri bitxi horiek ugaritzen dizkigun.

Kukuak berri pozgarria ekartzen digu urtero: udaberria hemen dugula, gure artean, dabilela, hor eta hemen, bizidun oro astintzen eta esnatzen. Ez al duzu zuen barruan, odolean, somatu?

Aurtengo udaberria berandu etorri zaiugu eta horregatik presaka dabil. Izan ere, bai al dakizue zenbaitainekoa den andereino atsegin honek duen egitekoa? Zenbait eta "negutuagoak" aurkitzen gaituen, orduan eta bulartsuagoa burutu behar duen lan... Urteetan sartuak gabiltzanok negutsuak izate omen gara, gazteak berriz udaberritsuak eta soziologoak hor ari dira beldurra sartzen: gero ta zahar ugariago eta gazte gutxiago izango dela-ta...

Horregatik ote da batzuek negu giroan murgilduak bizi direla, urte guztia negu hotza, negu beltza izango balitz bezala? Horiek ez ote dute kukua entzuten? Edo poltsikoan optimismorik gabe harrapatuko zituen txoriaren deiak...

Neguak, gure aiton-amonak insersorekin hondartzetara, epeltasun eta juerga bila eramaten dituen bezala, udaberriak ikasle taldeak Italiara eramaten ditu beste kulturak ezagutzera.

Udaberriak, neguak bere altzoan gordetzen eta babesten dituen lora ederrenak eskaintzen dizkigu. Jakin nahi nuke zenbat lora mota ote ditugun Goerrin. (Noizko erakusketa bat...?)

Negualdean musika eskolan ikasten aritu diren ikasleak eta txoriak, udaberriro beren emanaldietan aritzen dira isildu gabe.

Neguak bere Eguberrietako jai politak opor eta guzti oparitzen dizkigu, baina udaberria ere oso jaizalea da: ezkontzak (elizetan kabitzen ez direnak udaletxeko aretoetan); Jaunartzeak, Loinatzak, Sanprontxioak... udaberria bera, ez al da jai, festa handi eta, ai!, laburregi bat?

Kristauok Eguberrietan, nahiko frogatuta dagoena, Jesus jaio zela ospatzen du; bera biztu zela, berriz, udaberrian. Lur osoak bere izatea berritzen duela ikusten dugun honetan sinesgarriago egiten zaigu heriotza pasarte bat dela eta bizitza bueltaka-bueltaka beti garaile izango dela.

Bitartean, otoitz hau proposatzen dizut: Ilunpean bizi bazara, argia nauzu. Nekatuta bazaude, zure atsedena nauzu. Hautsita bazaude, nik osatuko zaitut. Zikintzen bazara, ez duzu nirekin itxura egin beharrik. Negar egiten baduzu, ni zu kontsolatu nahiean nabil. Zuk nahi ez baduzu, nik etzaitut behartu nahi. Zure aurkari naizela pentsatzen baduzu, nik ez dut zure garaile izan nahi.

Aurtengo udaberriak eskaintza berezia dakarkigu: hauteskundeak, baina oraindik ez dakiguna da hauteskundeen ondoren uda ala negua izango dugun. Ez dadila gertatu harek zioena: "Orain 48 ordu hausnartzeko eta ondoren lau urte penitentzia egiteko".

Partiduren batek aginduko balu negua hilabete batez laburtzea eta udaberria luzatzea, agian berari emango nioke nire botoa.

Niri zera gustatuko litzaidake: partidu guztiak boto kopuru berdin-berdina iris-tea; orduan bai benetako politika egin beharko luketeela.

San Juan suak erreko ez duen bitartean, "uda-berri" udaberritsua opa dizuet... eta ez dezagula "uda-zahar" bihurtu.

Nire lagun on batek esaten dit beti, munduak funtzionatzen duela badiarelako pertsonak (zu eta ni bezalakoak) gauzak maitasunaz eta ilusioaz egiten saiatzen direnak.

***Kukuak berri pozgarria ekartzen digu urtero:
udaberria hemen dugula, gure artean,
dabilela, hor eta hemen, bizidun oro astintzen
eta esnatzen.***



kutxa

Zer da udaberria?

Udaberria, ikuspegi astronomikotik, udaberriko ekinozioetik udako solstiziora doan denbora-tartea da. Udaberriko ekinozioa, gauak eta egunak iraupen berdina duten eguna da. Fenomeno hau martxoaren 21aren inguruan gertatzen da. Udako solstizioa berriz, urteko egunik luzeena eta gaurik motzena dituen eguna da, ekainaren 21a alegia. Beraz, udaberria, eguna luzatzen eta gaua laburtzen doan periodoa dela esan dezakegu.

Naturan aldaketa ugari

Garai tarte honetan eguzkiak gehiago berotzen du lurra neguan baino, izan ere, eguzki-izpiek ordu gehiagoz jotzen dute lurra. Honek, lurraren batez besteko tenperatura neguan baino 3-4°C altuagoa izatea ahalbidetzen du. Bestalde, eguzkiak intentsitate handiagoz jotzen du lurra eta argiaren kalitatea ere hobea da.

Aldaketa hauek guztiek, landare eta animalien erloju biologikoa martxan jartzen dute.

Landareak neguan fase begetatiboan egoten dira, lo baleude bezala. Hauetako batzuk hostoak mantentzen badituzte ere beste batzuk hostoak erabat galtzen dituzte neguan eta landare



belarkara askok berriz hazi edo sustrai moduan igarotzen dute negua.

Udaberria iristean ordea, landareak lozorrotik esnatu eta ugalketa-fasean sartzen dira loraketa-prozesuari hasiera emanez. Baina zerk eragiten du landare bat ugalketa-fasean sartzea?

Udaberrian hainbat aldaketa gertatzen dira ingurunean eta landareak aldaketa hauek nozitzeko gai dira fotoerrezeptoreei esker. Fotoerrezeptoreak eguzkiaren argi-seinalea jasotzen duten molekulak dira eta hauei esker segituan ohartzen da landarea eguna luzatzen hasi dela eta udaberria badatorrela. Baina nola?

Fotoerrezeptore hauek eguna luzatu eta argi-ordu kopurua handitu dela ohartzean, Constans izeneko proteina pilatzea eragiten dute. Proteina honen pilaketak, lorearen garapenean parte hartzen duten geneei lanean hasteko abisua ematen die. Hala ere badakigu landare guztiak ez direla batera loratzen, batzuk lehenago eta beste batzuk beranduago hasten dira zergin horretan. Zergatik?


Landare batzuk proteina pilaketa txikiagoak behar dituzte loraketa-prozesua hasteko eta beraz lehenago loratzen dira. Beste batzuk ordea proteina pilaketa handiagoa behar dute loraketa-prozesuari hasiera emateko eta ondorioz beranduago loratzen dira.

Argi-orduez gain badaude landareak esnarazi eta aktibitatean hastea eragiten duten beste faktore batzuk ere, tenperatura igoera adibidez.

Tenperatura igotzean lurzorua eta landarearen hezetasun-maila jaitsi egiten da eta gertaera honek, landarea ura xurgatzera eta bide batez berriro elikatzen hastera behartzen du. Honela, neguko lozorroa utzi eta landareak berriro urteko zikloari hasiera ematen dio loreak garatuz.

Landareak ezezik, animaliak ere berdin-berdin nozitzen dute udaberriaren etorrera. Beren ezkutalekuak utzi eta laster hasiko dira bikotekidearen bila bakoitzak beren dohain eta edertasun guztiak agerian jarritz. Kukuak poltsikoak beteta harrapa zaitzala!

JAKIN BEHARREKOAK



IBAIEN EZAUGARRIAK

Iturburutik bokaleraino, ibaiaren ezaugarri fisikoak (zabalera, sakonera, ohearen izaera edo korrontearen abiadura) etengabe aldatzen dira, eta uretako eta urbazterreko animalien eta landareen bizitza baldintzatzen dute.

Ibaiko lehenengo tarteetan urak abiadura nahiko handia du; ibaiak sakonera eta zabalera gutxi du eta landarediak itzal ederra ematen du eta horri esker ura fresko egoten da. Horren guztiaren ondorioz, ibaiako urak ondo oxigenatuta egoten dira, eta ekologiaren aldetik baldintza estuenak bete behar dituzten organismoak ere bizi daitezke bertan.

Ibaian beheago daukan tarteetan, ibaiaren tamaina handiagoa da, ibaiertzetako landare masak nekez ematen dio itzala ibilguari eta ibaiaren abiadura nabarmen moteltzen da. Egoera horretan, ibaiaren tenperatura handitu eta oxigeno gutxiago dago, bertako bizitza eragotziz.

Udaberrian bainbat aldaketa gertatzen dira ingurunean eta landareak aldaketa hauek nozitzeko gai dira fotoerrezeptorei esker.

Nola... -(e)n

Maizpide
euskaltegia

Noiz ondo eta... noiz ez hain ondo?

Errepara diezaiogun ondorengo esaldiari:

Leire, **nola** sukarra **duen**, gaur ez da ikastolara etorri.

Esaldi horretan ikastolara ez joateko arrazoia eman dugu, baina modu txukunean adierazi ote dugu euskaraz? Ez, bada! Izan ere, nahiz eta askotan entzun ditugun horrelakoa, erabilera hori gaztelaniaren kalko hutsa baita! Ikusi bestela:

Leire, **como** tiene fiebre, no ha venido a la ikastola.

Andregaiaren
urtebetetzea
denez...



Nola esan behar ote dugu zuzen? Bada, horrela:

Leire, gaixo dago**enez** (**gero**), ez da gaur ikastolara etorri.

Ondorengoak ere egokiak dira arrazoia edo "kausa" adierazteko:

Leire ez da ikastolara etorri, gaixo dago **eta**.

Leire ez da ikastolara etorri, gaixo **bait**ago.

Honek guztiak zer esan nahi du... "**Nola -(e)n**" beti gaizki dagoela? **Ez!** Txukun askoa da beste hainbatetan! Hona zenbait adibide:

- ✓ Aitona Alejandrok baserrian sagardoa nola egiten zuten azaldu digu.
Esaldi honi dagokion galdera hauxe da: Nola egiten zuten sagardoa?
- ✓ Anek Aste Santuan nola Extremadurako herri batera joan ziren esan zigun atzo
(=Extremadurako herri batera joan zirela esan zigun).
- ✓ Uda partean ere joango direla esan dit, nola eta ez duen bero handiegirik egiten
(=bero handiegirik egiten ez badu).

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Jonek logaritmoak nola erabiltzen dituen (nolako baliabideak erabiltzen dituen) komentatu digu.
2. Izeba Marijek nola Txinatik neskatala bat ekarriko duten esan dit.
3. Bihar, nola jai izango den, ez naiz goizeko hamarrak arte ohetik altxatuko.
4. Pellori, nola eta ez den txintxo portatzen, ez diote gurasoek litxarreriarik erosiko.
5. Esaldi hauek guztiak ondo dauden jakin nahi dugu!

OHARRA: 3. esaldian „jai izango denez” behar du!

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko:
943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitarkeak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04



reklame




E W M E

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarrizko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argioptika.com

BVLGARI *Salvatore Ferragamo* EXTREME ROMEO GIGI



ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626

DISEINUA SUKALDEAN

DECORactiva
LA COCINA QUE QUIERES



reklame

SUKALDEAN

Ziazerba orri-mamiaren hostopilak mariskoarekin



Nerea Gomez
Nere Etxea jatetxea
Lazkao

Osagaiak:

- Ziazerbaren orri-mamiak (penkak)
- Otarrainxka zurituak
- Ganba zurituak
- Gulak
- Txirlak
- Muskuiluak
- Tipula
- Irina
- Arrautza
- Gatza
- Ura

Ziazerbaren orri-mamiak egosi eta irina eta arrautzetan pasatu, frijitu eta gorde.

Betegarria egiteko, tipula txikitu eta sugorritzen jarri. Beste alde batetik txirlak ez ezik marisko guztia txikitu, tipulari gehitu eta ondo egiten utzi. Irin pixka bat bota eta ur pixka bat ere gehitu ore homogeneo bat lortuz.

Platerean jartzeko, lehenengo ziazerba jarriko dugu, gainen marisko oreka, gainean ziazerba, gero marisko oreka... ziazerbarekin bukatuz.

Ondoren inguruan aparte irekitako txirlak jarriko ditugu. Saltsa berde pixka bat ere bota dezakegu gainetik platera goxoagoa egoteko.

Geure bizilekua

AHOLKUA

Geure etxea geure bizimoduaren eta izaeraren isla bihurtzea uste dugun baino errazagoa eta sinpleagoa da. Urrats batzuk jarraituz eta zenbait asmo eta ideia kontutan hartuz erraz lortuko dugu:

- Eragin handia duten joera eta modetatik ihes eginez, etxeko altzariak denbora jasaten jakin behar dute. Altzari edo pieza on bat etxeko leku ezberdinetan ondo geldituko da eta aldaketa txikiak egiteko eta etxea zerbait dinamiko bezala ikusten lagunduko digu.
- Joera eta modak erabat jarraitzeak arrisku nabarmen bat du: etxe guztiak

berdinak izatea eta geure izaera ez islatzea. Beno, oso aurrerakoiak bagara geure isla eta ukitua hor egongo da, baina etxeak bizpahiru urte pasatzen direnean aldaketa sakona jasan beharko du beti in izateko.

- Egurrezko altzariak, txikiak direnean ez lehenagoko armairu handiak (egur gehiegi) denborari ondo egiten diote aurre. Kolore eta egitura aldaketa xeheak eman daitetzeke, baina kasu gehienetan hobera egiten du altzariak. Honez gain aldaketa lagungarri batzuk eginez gero (hormak kolore egoki batez marrotu, hormetako papera

aldatu, edo lanpara ausart bat sartu, esate baterako) altzari on batek beste itxura eta argi bat itzuliko digu.

Ez dut uste beldur gehiegirik eduki behar dugunik geure etxean ausardiaz elementu ezberdin edo kontrastekoak sartzeko. Ez diogu uko egin behar geure dualidade estetikoari. Etxe guztia estilo berekoa badugu, baina izugarri gusatzan bazaigu beste estilo bateko edozein altzari edo osagarri eta begi apur batekin jokatuz, geure espazioan egoki integratuko da eta gainera indarra emango dio. Beraz geure lana, dekorazioaren lana, konponbideak emateaz gain perspekti-



Nekane Eskisabel
Atari barne diseinua

ba estetiko eta praktiko batetik, zeuen beharren eta gustuen interprete izatea da, dekorazio orekatu bat egiteko eta zeuek zeuen etxean gustura izateko.

PSIKOLOGI KLINIKOA
**Jose Ramon Pato Prieto**
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

**LADA**
Ssang Yong

ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

nolako ikasketak,
halako etorkizuna

Lara Arruti
Ikus-Entzunezko
Komunikazioko ikaslea.

*"Gizarte honetan
ezinbestekoa da
komunikazioaren
arauak ezagutzea"*





“Guretzat jaia eta astelehena berdinak dira, ez daukagu egunerokotik ateratzerik”

Zer moduzko negua joan da?

Negua ona joan da, baina negua orain daukagu hemen. Ardiak kanpora atera gabe dauzkagu, bustia, euria, lokatza... Errapeak ere zikindu egiten dituzte kanpoan ibiliz gero eta esnea ere ez da ona izaten.

Mendietako larreak irekiko dira laster. Ardiak mendira joateko irrikan egoten al dira?

Ni maiatzaren erdialdera joaten naiz mendira. Hemen ondo daude, barruan ere, jana emanez gero, gustura egoten dira. Ardia kanpoko delako esaten da, baina euri tanta batzuk eta zaparradak direnean, denak barrura begira jartzen dira. Beren garaian izaten dute mendirako ilusioa.

Artzainarentzat garai lasaiagoak izaten al dira mendikoak?

Bai. Mendikoa beti ere lasaiagoa. Ardiek alde egin dutela eta ez daukazu pendiente egon beharrik. Hori bai, eskuz jectzi behar izaten dira mendian, eta egunero bi ordu eta erdi pasa aritu behar izaten da. Lehenengotan, esku muturrak mindu egiten dira.

Gaztak ezberdinak izaten al dira?

Alde handia dago. Mendiko gazta finagoa da. Naturala delako-edo... ez dakit zergatik. Mendiko gazta erostera jende asko etortzen da. Baina bestea nahiago dutenak ere badaude, denetik eduki behar.

Zein ezaugarritako gazta egiten duzu?

Nahiko suabea. Gatzagi naturalarekin egiten dut baina nahikoa suabea ateratzen da. Botatzen zaion gatzagi kantitatearen arabera izango da hori.

Artzaina izango ez banintz...

Lehen ere ofizio asko dauzkat nik, ibilita behintzat. Igeltseritzan ibilia naiz, Iberdrolan ere bai kanalizazioak egiten... Ofizinara behintzat ez daukat joaterik.

Uda ala negua:

Nik negua gustura pasatzen dut, hori bai, bere garaian. Batzuk esaten didate, mendira joateko desiatzen egongo haiz? Eta ez, bere garaia iritsi arte, ni gustura ibiltzen naiz. Niretzako biak dira onak. Aukeran? Uda lasaiagoa da, jectzi beharrik ez daukagu, beste askatasun bat daukagu...

Gaztari laguntzeko edari bat:

Ardoa, Errioxa bat. Hori bai, Tarragonan eta Nafarroan ardo onak daude gaur egun, eh? Batzuk sagardoa esaten dute, baina ni sagardotegira joan izan naiz eta postrea iristen denean, basoerdi bat gustura edango nuke.

Ketua ala ketu gabea:

Nik ez du inoiz ketu. Baina ketua ere gustatu egiten zait. Baina niretzat ketzeak gatzari zaporea kendu egiten dio.

San Prudentzio jaietarako plan bat:

Umeein, bueltatxoren bat egin beharko dugu. Hori ez dago uzterik. Arkumeren bat hil eta otordu berezixeagoren bat egin. Bolada honetan, egunerokotik ez daukagu ateratzerik. Guretzat, jaia eta astelehena berdinak dira.

Oporretarako leku bat:

Mendia, Pirinioak.

Amets bat:

Loteria tokatzea.

Lanean jarraituko al zenuke?

Bai, beharbada ardi gutxiagorekin, baina bai. Ardiekin gozatuko nuke.

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...

era guztietako ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

Dolarea
j a t e t x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

Aho finen gozamenerako...

Gure kartak otordu
landuak eskeintzen
ditu non zapore eta
texturak aurkezpen
harmoniosuekin
konbinatzen diren...



fraktone



680 641 401

676 952 968

A
N
D
A
M
I
O
R
I
K

G
A
B
E
K
O

L
A
N
A
K



Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak



Goierriko Bertso-Eskolak 25 urte

Ordiziako Argi Berri elkartearen ekimenez eta babesean, duela 25 urte sortu zen Goierriko Bertso-eskola. Denbora guzti honetan, 800 lagun inguru ibili dira bertsoaren neurriak eta errimak ikasten. Urteurren hori aitzaki

hartuta, ekitaldi ugari izango da maiatzean hasita. Irailean adibidez, liburua aurkeztuko du Igor Egurennek, bertso-eskola-ko protagonisten hitza emanez. Guk ere, hurrengo lerrootan, hainbat protagonisten oroitzapenak eta iritziak jaso ditugu.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak



NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

Mikel Mendizabal

Bertso-eskolaren bultzatzailea

Mikel Mendizabal itsasondoarra eta Xanti Garmendia gaintzarra izan ziren Goierriko bertso-eskolaren lehenengo irakasleak. Mendizabalek, bertso teknikak irakasten zituen eta Garmendiak, bertso doinuak.

Mikel Mendizabalek ondo gogoan du hasiera:

“Santa Anako ikastetxe-ko gela batean hasi ginen. Joxe Munduate, Xabier Narbarte, Joxe Ramon Gerriko... hasi ziren. Argi Berri Elkartea izan da Goierriko Bertso Eskolaren oinarria eta Argi Berrik gero lortu zuen Barrena Kultur Etxean, gela bat Bertso Eskolarako. Lehenengo Ordizizialako Udalarekin hitz egin zen baina gero planteatu zen, beste herrietatik jendea ere etortzen zela, garraioaren arazoa ere hor zegoen, eta orduan Argi Berrik, Goierriko udaletxeekin halako hitzarmen bat sinatu zuen. Udaletxe dezente ziren. Aldi berean, ordainetan, konpromisoa hartu zuen Goierriko Bertso Eskolak, herri horietako eskoletan, bertso emanaldi bana egingo zutela. Bertsolari gazteak joaten ziren eskoletara, Munduate, Narbarte, Gerriko eta horiek. Berehala etorri ziren, Sarriegi, Ekaitz Goikoetxea, Igor Eguren, Alaitz Saraso-

la... Segura, Idiazabal, Zegama eta Ataungo eskoletara joaten ginen. Ariketa ezberdinak egiten genituen. Bertsolari gehienek jendau-reko aproba izaten zen.

Hasierako urte haietan, 1985-90 urte bitartean, bertsolaritza oso modan zegoen, eta hasieran jende asko apuntatzen zen. Urte batean, 50 bat ikasle etorri ziren. Oso urte emankorrak izan ziren. Orduan, astelehenetako taldea bitan banatzen genuen. Xanti Garmendia eta biok ibiltzen ginen. Xantirekin doinuak lantzen zituzten eta nirekin, ariketa ezberdinak egiten zituzten. Orduko arazoa zen, taldeak oso handiak zirela eta oso handia izateaz gain, maila ezberdintasun handia zegoen. Batzuk bat-batean hasteko moduan zeuden eta beste batzuk ez. Orduan erabaki genuen, bat-bateko taldea sortzea. Nikolas Zeberio izan zen bat-bateko taldea hartu zuena. Gaur egun ere, astelehenetan Bixente Goristidi aritzen da eta asteazkenetan, bat-bateko taldearekin, Aitor Sarriegi dabil”.

Aldaketak

“Orain dela 10 bat urte, Ataunen planteatu ziguten, Ataungo eskolan bazegoela



talde bat eta Ordiziara etortzea beraientzat nekez samarra zela eta Ataunen bertan hasiko zirela Jexux Goikoetxea irakaslearekin. Lehenengo fase hori, Ataunen bertan landuko zutela eta bat-bateko taldea asteazkenetan Ordiziara etorriko zirela. Azkeneko urte honetan, Beasainen ere bertso-eskola sortzeko asmoa daukate, lehenengo fase horretarako. Bat-batekoak Ordiziara bideratu beharko lirarteke, denak koordinatuta aritzeko. Goierriko bertso-eskolaren erreferentzia eta gunea Ordizia izan da beti

eta komeniko liltzateke, gu-ne eta erreferentzi hori mantentzea. Bestela arriskua dago, gehiegi zabaldu eta koordinazio bidea mehetzea.

Goierriko bertso-eskola garrantzitsua izan da, batez ere Goierriko bertsolaritzaren erreferentzia izan delako. Geroztik, saiatu gara eta sare hori zabaldu egin da. Zentzu askotan zabaldu da. Esate baterako, Gabiriako Osinalde saria zabaldu egin da: lehen talde batekin egiten zen eta orain talde hori handitu egin da, Ordizian, Idiazabalen eta Aztirin kan-

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

xetai www.xetai.net
Armairuak · Altzariak
Osagarriak

Tel.: 943 88 43 84
Oriamendi, 30
BEASAIN

LAGO



Santi garmendia

*Bertso doinuen irakalsea
lehen urteetan*

Santi Garmendia gaintzarra ondo gogoratzen da, Goierriko bertso-eskola sortu aurretik, Beasaingo Alkartasuna Lizeoan bilera bat egin zela Argi Berrik deituta. Santi orduan, Ordiziako Jakintza ikastolako irakaslea zen. Argi Berrikoek asmoa azaldu zuten, azpiegitura beraiek jarriko zutela, irakaslea Mikel Mendizabal itsasondoar bertsolaria izango zela... "Nik neronek, kanturako afizioa beti eduki izan dut eta nik eskaini nezakeen laguntza horixe zen. Mutikotan, Juanito Dorronsoro Gaintzan egon zenean, kantu mordoxka bat erakutsi zizkigun". Eta horrela hasi eta dozena bat urte egin zituen bertso-eskolara hurbidutakoei bertso doinu zaharrak eta berriak erakusten. Zortzi txikiko doinuak, zortziko handikoak, hamarreko txikikoak, neurri berezikoak... Juanito Dorronsoro ataundarrak, asko lagundu zion doinutegiarekin. "Materiala ere utzi zidan. Bertso zaharrak erakutsi eta bertso zaletzeko erabiltzen genituen", zehaztu du gaintzarrak. "Batez ere doinu biziak, alaiak, gustatzen zitzaizkien. Grabatu ere egiten genituen haurrak kantuan, eskola ordua ahalik eta bizi-izateko, eta joko gehiena ateratzeko", gogoratu du.



*Haritz Zeberio eta Ekaitz Goikoetxea 1991ko
eskolarteko txapelketan, Donostiako Karmelo Baldan.*

Aitonak eta aitak erakutsita, gerezia
omen zen enborrarentzat egurrik onena,
erretxina dauka,
eta erleari asko gustatzen zaio"

poraketak jarri dira... eta hori ere aberasgarri jotzen dugu. Ondo ikusten dugu sarea zabaltzen joatea, beti ere, ondo jositako sarea, bakoitza bere kontura aritu gabe eta elkarrekin koordinatua izatea.

Azken urte hauetako beste aldaketa bat da, orain Bertsozale Elkartetik hasi dira irakaskuntza arautuan zerbitzu bat eskaintzen eta Goierriko ikastetxe gehienetan ematen da zerbitzu hori. Bixente Gorostidi dabil horretan. Hamabost egunean behin ordubeteko klasea ematen die, 5. eta 6. mailako ikasleei. Lehenengo fase hori edo jendea erakartzeko fase hori, hortik elikatzen da. Hala ere, hori ikusten dugu badagoela hutsarteren bat, azkeneko urteetan elikadura hori asko jaitsi baitzaigu. Jendea erakartzea kostatu egiten zaigu

eta badirudi eskoletan Bixenteren zerbitzua oso gustura hartzen dutela baina gero kostatu egiten zaigu bertso-eskolarako pauso hori. Zergatik izan liteke hori? Bertsolaritzak lehen izan izan zuen moda edo olatu hura jaitsi egin da eta horretaz aparte, eskolaz orduz kanpoko eskaintza asko dauzkate".

Etorkizuna

"Aurreko urteko taldea mantentzen da, baina talde berriak ekartzea eta osatzea dezente ari zaigu kostatzen. Ez dut uste Ordiziako kasua bakarrik denik, beste lekutan ere jaitsi egin da bertsolaritzaren olatua, beste lekuetan ere taldeak gutxitu egin direla somatzen dugu, leku batzuetan galdu ere egin dira.

Etorkizuna ere garbi dago, bide horretan egin be-

harko dugu etorkizuna. Lehenengo fasea litzateke, irakaskuntza barruan eskaintzen den bertsolaritzako zerbitzu hori ematen jarraitzea, eta hortik, irakaskuntza araututik, eskolaz kanpoko pauso horretarako fitxajeak egitea. Guk ere ahalegina egin beharko dugu, urteroko talde hori bizi-rik mantentzeko, adineaz pasatzen direnen ordezkoak, eta ahal dela talde berriren bat urtero-urtero berritzen joatea izango litzateke oso seinale ona. Azken urteotan, Goierriko kasuan, Ataunen, Beasainen, Lazkao eta Idiazabalen baliteke hasierako fase horretan talde txiki batzuk sortzea, baina oso garrantzitsua izango litzateke, bigarren pausoa, bat-bateko pausoa, Ordiziar bideratzea, Ordiziako erreferentzia mantendu eta aurrera egiteko.

Garrantzitsua da etorri den taldeari eustea eta jende berria ekar araztea. Kimu berriak ere badatoz. Ainhoa Mujika, Endika Igartzabal, Odei Lopez, Joseba Agirrezabala, Gemma Urteaga eta Joanes Etxaide.

Bertsolaria jaio ala egin

“Egaña, Lizaso eta Irazuren-gandik atzerako bertsolari guztiak, bertso-eskolan ibiliak dira, Eskolarteko txapelketako ibilbide hori garatu dutenak, eta hortik ateratako jendea da.

Bertsolaria jaio ala egin



Aitor Sarriegi

Gaur egungo irakaslea

10-11 urte zituela bertso-eskolan hasi eta gaur egun, bat-bateko taldeko arduraduna da beasaindarra. Asteazkenetan, ordu eta erdiko saioan, dozenaldi laguneko taldea gidatzen du. Oroitzapen asko ditu. “Lehenengo bertso-eskolara hirugarren mailan etorri nintzen. Urtebete egin nuen etorri gabe eta gero berriz etorri nintzen. Izugarritzko koadrila etortzen ginen. Nik gogoan dut, Ataundik, autobus oso bat beteta etortzen zela. Denera 50 bat lagun ibiliko ginen. Astelehenetan bertan, bi talde zeuden: aurreratuegoak zeudenak eta gazteagoak.

Izugarritzko jende pila etortzen zen baina nik gaur egungoekin konparatuta, diferentzia ikusten dut, gaur egun etortzen direnak, bertsozaleak dira eta badakite nora datozen. Orduan jendea, bertsozalea ez zena ere, pilan etortzen zen, eta gero uzten joaten zen edo bertsozaletu egiten zen.

Baina beste masa hori gaur egun ez da etortzen bertso-eskolelara.

Handik urte batzutara, bat-batean hasiteko gogoia genuenak, asteazkenetan hasi ginen, Nikolas Zeberiorekin. Gogoratzen naiz, Goierrikan kanpokoak ere etortzen zirela: Rikardo Gonzalez Durana arabarra, Bittor Elizagoien, Juanjo Sagastibeltza... Nikolas Zeberioek utzi egin zuen eta Eusebio Igartzabal, Joxe Munduate eta Joxe Ramon Elortza ibili ziren talde hori eramaten. Denborarekin desagertu egin zen, astelehenetako taldea bakarrik geratu zen, jende gutxiago etortzen hasi zen... orain, hiru bat urte izango dira bat-bateko taldearekin hasi ginela”.

Irakaslea. Etorkizuna

“Irakasle baino gehiago gai-jartzaile edo saioa nondik nora joango den gidatzen dut. Bati gaia jarri, besteak lau oinekin egin dezala... ordena pixka bat eraman. Eta horretaz gain, aholkuak eman eta iritziak konpartitzea.

Jende gehiago berriz gerturatzen hasi da. Gutxiagoko urteak izan dira. Kontuan eduki behar da baita ere, hezkuntza arautuan bertsolaritza lantzen ari direla Goierriko eskoletan, Bixente Gorostidirekin. Horrek ere nahitaez, elikatu beharko du bertso-eskola. Nik pertsonalki, gehiago elikatuko zuela uste nuen. Goierri bezalako eskualde batean, batik bat, hainbeste herri txiki egonda, nahiko giro euskaldunean bizi den jende asko egonda, eta eskolan bertsolaritza bultzatuta, uste nuen jende gehixeago etorriko zela. Baina pixkanaka nik uste dut jendea antzematen ari dela eta dagoeneko bat-bateko taldean dabilzanek lortzen dituzten emaitzen inguruan, nik uste dut, jende gehiago inguratu daitekeela. Nik espero dut, datozen urteotan, talde honek uste duen baino zerikusi gehiago edukiko duela, hona inguratuko den jende kopuruan”.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnakia 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

0



Igor Eguren

*Bertso
eskolaren
historia biltzen*

Goierriko bertso-eskolaren 25 urte historia eta protagonistak biltzen dituen liburua idazten ari da Igor Eguren. Hitzazurrearen ondotik, 25 urteotako kronologia joango da. Jarraian, liburua-ren zati nagusia etorriko da: 25 urteotan protagonista izan direnei hitza ematea. Argazkiak eta bertso bilduma. Bertso-eskolak eman duen uztarekin, urtez urte bertso-eskolan ibili direnak... irailerako informazio guztia biltzen eta idazten ari da goierritarra.

Igor Egurenek lotura zuzena izan du Goierriko bertso-eskolarekin. 7 urte zituenean, bertso-eskolan. "Atipikoa da hain gazte hasia, gaur egun ez agian. Niri bertsozaletasuna aitona-rengandik datorkit, umetan oso harreman estua nuelako aitona-rekin. Bertso-eskola sortu zenean, inoiz lotsa handiko pertsona ez naiz izan eta, izena eman nuen", gogoratu du.

Hurrengo lerroetan, bertso-eskolak eman dionaz eta etorkizunaz, gogoeta egin du Igor Eguren:

"Zer eman didan? Gauza



asko. Egia esan, azken urteetan, organikoki albora izan naiz lan arrazoiengatik. Bere garaian eman didana asko izan da. Nire adineko lagunak, solfeora eta ez dakit zertara apuntatzen zirenean, ni bertso-eskolara apuntatu nintzen. Batez ere, bertso-eskolak eman didana, jende eta leku asko ezagutzea izan dira. Bertso-eskolan sortutako ondare edo oinarri horrekin, bertso-tarako gaitasuna izatea, asko mugitzea ekarri zidan. Umetan, Eskolarteko txapelketatara, afarietara... joaten ginen, asteazken batean berandura arte ez etxeratzeara... Niri izaera garatzeko modu bat, kaleratzeko modu hori, eta nik uste dut ni bezala, nire belaunaldikoek eta ondorengoek, asko diotela eskertzeko Argi Berri

elkarteari, egin duen eta egiten ari den lanarengatik. Hemen inguruan bertsolaritzak izan duen astindua, Euskal Herri osoan 1990eko hamarkadan izan zen boom-a hona estrapolatzen baldin badugu, asko edo dena diogu eskertzeko Argi Berriri eta bertso-eskola sortzearen inizatiba horri.


Oro har eskualdeari eman diona da, bertsolaritza bizitzeko modu bat eta aukera bat".

Etorkizuna

"Hau dena bezala da: 90eko hamarkada osoan, telebistaren laguntzaz eta komunikabideek, telebistak bultzatuta, eman behar izan zioten bultzada eta horrek suposatzen zuen eskoletan jende gehiago izatea eta jende gehiago lotzea bertsolaritzaz

ri. Horrek beherakada bat izan du 90eko hamarkadaren erdialdetik 2000. urtera bitartean, eta berriro badiurdi puntako zerbait bezala jartzen ari dela berriz bertsolaritza.

Etorkizunean ere zerbait puntuantea izango da, garaian garaian dagoen modaren arabera zerbait izango da. Errealitatea hor dago zenbakitan, 25 urte dira sortu zela eta 25 urte horietan eskaria egon da, urte batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago, baina sekula ez da jenderik gabe. Baina nik uste dut beste olatu baten hasieran egon gaitezkeela. Benetan hasiko bada zenbat iraungo duen, ez dakit. Modak aginduko du baina garrantzitsua da oso irakaskuntzan ere arautzea".




KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK
☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



Jauregi
TOLDOAK





INSTALATZAILE OFIZIALA
 **LLAZAPLUS ZENTROA**
T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



hartzan dutelako, komuni-
kazioarako erraztasuna eta
trebetasuna hartzen dutela-
ko, beren sentimenduak or-
denatzen eta bideratzeko
ariketa horiek oso onuraga-
rriak direlako. Gaitasun per-
sonalak ere bai: irudimena,
sormena, memoria, ahoske-
ra, kantera... Baita ere, ber-
tso-eskola baten lanketak,
beste zenbait gaitasun lan-
tzeko ere balio duelako. Esate baterako, talde lanean
aritzeko gaitasuna, besteei
entzuteko eta erantzuteko
gaitasuna, norbere autoes-
tiemua garatzeko oso bali-
garria da, inprobisazioko
ariketak egiten dira eta de-
nok dakigu eguneroko bi-
zitzan inprobisatzeko mo-
mentu asko izaten ditugu-
la... Ikusarazi gurasoei eta
irakasleei, bertso-eskolan
aritzeak, bertso-eskolan lan-
keta egiteak, ikasleentzako
onura asko dakartzala”.

Argi Berri eta Lazkao Txiki

“Geroztik Goierriko bertso-
eskolan baita ere, Lazkao
Txiki irudia harturik, bertso-
paper lehiaketa ere antola-
tzen da. 15. urtea bete du
horrek ere eta hori ere bes-
te puntu bat gehiago da
erreferentzia horretarako.

Argi Berri elkarteak, ber-
tso-eskolatik atera den gaz-
te horiei beste aukera bat
eman die, afari-merienda
goxoak eginez. Elkarteko
gune bat ere eskaini izan
digu”.

egiten zen eztabaida izaten
zen duela urte asko. Gaur
egun beste maila batean
egiten da eztabaida: ez go-
az bertsolari izar batzuen

bila, baizik eta garrantzitsua
da konturatzea, batez ere
gurasoak eta irakasleak,
bertsolaritzak dituen bali-
bideak eta bertsogintzako

ariketa horiek zeinen onu-
ragarriak diren neska-muti-
lentzat. Onuragarri, batez
ere beraien sentimenduak
adierazteko erraztasuna




ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

- ✕ Jabekideen
komunitatea
osatzea
- ✕ Komunitateen
kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen
eskaera
- ✕ Aholkularitza
legala
- ✕ e.a.



AUZOKI

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486



BATXI
IKASGA
MODA

Txindoki-Alkartasuna Institutua

B a t x i l e r g o g u z t i e n k

ARTE BATXILERGOA

MAIA
2 et

Unibertsitateko ibilbidea:

Arte Ederrak
Ikus-entzunezko komunikazioa
Industri diseinuko injinerutza teknikoak
Publizitatea...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Irudia
Ikus-entzunezko ekoizpena
Diseinu eta ekoizpen editoriala
Altzari diseinua
Arropa diseinua...

TEKNOLOGI BATXILERGOA

Unibertsitateko ibilbidea:

Injinerutzak
Arkitektura
Fisika
Matematika...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Fabrikazio mekanikoa
Produktzio zerbitzua eta Mantenimendua
Elektrizitate eta elektronika
Egurra eta altzariak
Automozioa...

AURREMATRIKULA: APIRILAR

Ugartemendi, 6. 20200 Beasa




ain www.txindokialkartasuna.net

Peio Olariaga: txerri hazlea



Duela bi urte pasatxo, ogibide berriarekin hasi zen Peio Olariaga gabiriarra: txerriak hazten. Ia guztiz erorita zegoen Ataungo Amundarain garakoa baserri erosi eta inguruak garbi eduki eta etekin bat ateratzeko asmoz, txerriak hazten ditu. Goierriin bakarra da.

Askatasunean hazten ditu txerriak Olariagak. Txerri Zaleok elkarteko kide da eta bere txerrien okela, Basatxerri izenarekin saltzen dute. 240 buru ditu momentuan. Aralarko eta Ataungo mendietako bista paregabea aurrean dugula, txerrien hazte prozesua azaldu digu Olariagak.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA


Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5

BEASAIN

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Nolatan hasi zinen txerriekin lanean?

Erorian zegoen Ataungo Amundarain garakoa base-
rria erosi nuen. Urtea pasa-
tu nuen ingurua garbitzen
eta beti zikina. EHNE sindi-
katura joan nintzen zer jarri
nezakeen galdezka eta han
esan zidaten txerriak jartze-
ko jende bila zebiltzala. Ba-
serrian beti edukitzen ge-
nuen etxerako txerriren bat
baina txerrien asunto hau
batere ez nuen ezagutzen.
Handik hasi nintzen, beste
esperientziak ikusten... ha-
la hasi nintzen. Gustura na-
go. Lan gehiegi ere ez dute
ematen. Nik egunero he-
men, ordubete edo ordu eta
erdi inguruan dena eginda
daukat. Denbora gehiena,
bidean pasatzen dut, etor-
tzen eta joaten. Txerria eta
oiloa dira elkar jaten duten
animaliak. Odol arrastoren
bat baldin badute, hozkaka
hasten dira eta jan egiten
dute. Gertatu zait txerria
akabatzea. Eta hori ondo
zaindu egin behar da.

Zein arrazatako txerriak hazten dituzu?

Frantziarra da, patrin arraza-
koa. Bi edo hiru arrazen ar-
teko nahasketa da. Nafarroa-
atik, Sorladatik ekartzen di-
tugu txerrikumeak. Txerri-
kumeak, Txerri Zaleok El-
karteak berak ekarri eta era-
maten dizkigu. Guk hazi
bakarrik egiten ditugu.

Zenbat denboran hazten dituzue?

2 hilabeterekin ekartzen di-
tugu txerrikumeak eta zazpi
hilabete egin arte edukitzen
ditugu. Ez dira denak ber-
din hazten, baina 80 bat ki-
loekin ekartzen dituzte eta
160 bat kilorekin kendu.
Hotzarekin hobeto ibiltzen
dira. Beroarekin gutxiago



Txerri Zaleok elkarte

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kanpoko txerri ustipenen bideragarritasuna ba-
lioztatzeko eta ustiapen berrien sorkuntza bultzatzeko, Txerri Zaleok elkarte sortu zen.
Gipuzkoako eta Bizkaiko 21 abeltzainek osatzen dute elkarte. "Laguntza osoa ematen
du Txerri Zaleok elkarteak: proiektuak egiteko, aholkularitza... Txerrikumeak ekarri eta
eraman beraiek egiten dituzte; hil; elaboratu; saldu... Guk txerriak hazi egiten ditugu eta
produktua, Basatxerri da. Elkartean, bazkide izateko aukera izaten da, bi urtera, lau txan-
da txerri hazitakoan", zehaztu du Peio Olariagak.

Txerri Zaleok elkarte txerrien okela, Basatxerri izendapenarekin saltzen da eta
"salmenta igotzen den eran, txerri hazle berriak sartzen dira elkartean. Ni orain dela bi
urte sartu nintzen eta urtebete lehenago-edo eskatuta neukan", azpimarratu du gabiria-
rrak.

gizentzen dira, gutxiago ja-
ten du-eta.

Bost hilabete txerriak
sail batean eduki eta hilabe-
te edo hilabete eta erdian,
errekuperatzen uzten diogu
terrenoari. Gorrituta uzten
dute. Atsedeneko tartean
ikuiluak ondo-ondo garbi-
tu, desinfektatu eta inguru
berria prestatzen dugu.

Askatasunean, solte, kanpoan hazitako txerriak

dira, ezta?

Bai, 2 hektarea lursaileko,
110 txerrikume izaten da
proportzioa. Hariztietan,
pagadietan, gaztainadietan,
belardietan... bazkatzen
dute. Jan denetik egiten du-
te, harrapatzen duten guz-
tia: larrak, hostoa, garoa,
belarra, ezkurak, gaztai-
nak, sasiak, belarrak, sus-
traiak... denetik jaten dute.
Terreno oso ondo garbi-

tzen dute.

Ikuilu mugikorrek ditu-
gu, atsedean hartu eta lo
egin dezaten. Udan igual
sartu ere ez dira egiten, bai-
na. Guztira zortzi dauzkat
baina txabola guztiak ez
dizkiet irekitzen, bestela si-
maurra barruan egiten dute
eta egunero-egunero simau-
rra ateraz ibili beharko nu-
ke. Handitzen doazen eran,
gehiago irekitzen joaten

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

naiz, leku gehiago behar dutelako. Bat edo beste gai-xo edo elbarri baldin bada-go, aparteko txabolan edukitzen ditugu.

Pentsurik ematen al die-zu?

Bai, jantokia era mugikorra da. Pentsua eta ura ere, nahi adina izaten dute. Garria, garagarra, artoa eta baba izaten dute. Hori bai, adinaren arabera, pentsua aldatzen joaten gara. 3 pentsu ezberdin ematen dizkiegu. 2 aldiz parasitoak kentzeko tratamendua egiten diegu eta gorrinaren aurka-ko txertoa eman ere bai.

Behin txerriak hazitakoan, zer egiten duzue txerriekin?

Iraetan hiltzen dituzte txerriak. Hortik aurrera Elkar-tea arduratzen da txerri haragiaz eta bera merkaturatzeaz. Basatxerri izenarekin merkaturatzen dira produktu guztiak: solomoa, txule-tak, saiheskia, urdaia, urdaiazpikoa, urdaiazpiko egosia, txorixoa, saltxitxoia... Txerri bakoitzak, bi aldeetan, baserritar bakoitzaren zenbakia daraman zigilua dauka.

Guk hazi bakarrik egiten ditugu. Urte hasieran erabakitzen da prezioa eta ez da mugitzen. Etxerako bat uzteko aukera izaten da. Baina askotan txerria handia izaten da.

Hemen Goierriin, ez da leku askotan saltzen Basatxerri zuek orain Kixketen hasiko zarete.

Bai, hemen gutxi ezagutzen da, baina ondo saltzen da. Granjakoaren aldean oso diferentea da, beste ikutu bat dauka. Hauek ibilian, muskulatura oso ezberdina daukate. Granjakoa beti



*“Txerriak ekarri aurretik,
basurdea ibiltzen zen
inguruan.
Harrezkeroztik
ez da etorri.
Basurdeentzat
leku ona baldin bada,
txerrientzat ere ona
izango zela pentsatzen
nuen!”,
dio barrez
Peio Olariagak.*

geldi egoten da. Zapore aldetik asko nabarmentzen da.

Otsailean egin genuen batzarra, labelaren barruan sartu ala ez erabakitze-ko. Granjako txerriarekin batera sartu nahi zuten eta gure izena erabili nahi zuten granjako txerriaren produktuentzat ere. Eta ezezkoa erabaki genuen, produktu ezberdinak zirela-eta. Gurean 160 hartzen bost hilabe-

Tel 943 88 44 00 Faxa 943 80 51 27 www.biokzerbitzuak.com Ordizia Goierri, 12	 biok z e r b i t z u a k	kudeaketa fiskala kontablea merkatala laborala
--	---	---

 LEIAR	 LEIAR	KRISTALDEGIA ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24 BILTEGIA: Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70 BEASAIN
---	---	---

te pasatzen badute, granjan igual hiru hilabete beharko dituzte. Eta produktua ere ez da berdina. Beste haragi klase bat gelditzen da, energia asko gastatzen dute-eta.

Txerriek, beraiekin daramate usainaren fama.

Herritik aparte samar eduki beharreko ganadua da txerria, usaina ere izaten du simaurrak eta ia herri inguruetan utzi ere ez dute egiten. Egia esanda, kanpo librean ibilita, ez da halako usainik izaten.

Txerriez gain, oiloak eta ahuntzak badauzkazue.

Bai, txerriak ofizio dira eta oiloak eta ahuntzak afizio. Oiloen eta Ahuntz eta Sasiardien elkateak ere badaude eta bertako kide naiz. Bost motatako oilarrak dauzkagu: marradunak, zilarrak, beltzak, gorriak eta lepasoilak. Erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen dute.

Ahuntzei dagokionean, azpigorriak dauzkat, bertako arraza. Araba eta Bizkaia aldean daude gehiago. Gipuzkoan gutxi. Aretxabal eta Eskoriatza aldean daude. Goierriin neuk, eta Idiazabalgo batek bakarrik ditugu eta terenoak garbitzeko erabiltzen ditugu.

Nik uste dut, animalia bakarrari heldu beharrean, dibertsifikatu egin behar dela. Kiwiak ere badauzkat... Gabirian dauzkat kiwiak.



Kixket: baserri txikia

Baserriarekin oso lotua dagoen bikotea da Peio Olariaga gabiriarrak eta Elisabeth Urteaga lazkaotarrak osatzen dutena. Peio, baserriko lanetan aritzen da, batez ere txerriak hazten; Elisabethek, Ordiziako Sanperio kalean, Kixket izeneko "baserri txikia" ireki berria du.

Mimo handiz eraiki du lazkaotarrak, aldarrikapena izan nahi duen txokoa: bertakoa kontsumitzeko deia. "Ikusten dugu hutsune handia dagoela bertakoa bertan kontsumitzeko. Beraz, bertako produktuak kontsumituko diren leku bat sortu nahi izan dugu. Beti kanpokoaren bila joaten gara baina hemen bertan badauzkagu gauza onak", adierazi du Elisabeth Urteagak.

Gosari karta

Eguneroko ogia, jogurrak, esnea, Basatxerri produktuak, arrautzak, etxeko kiwiak eta intxaurrak... salgai dituzte. Horrekin batera, gosari bereziak ere eskaintzen dituzte. Horixe izan da lazkaotarraren apustua. "Gosari karta egin dugu. Menu ezberdinak prestatu ditugu, inguruko baserriko produktuekin. Mermeladak hemengoak dira, ogi ekologikoarekin egiten ditugu tostadak, esnea Iztuetakoa da.... Beste era batera gosaltzeko aukera ematen dugu", azpimarratu du.

Baserri giroa eman nahi izan dio txokoari. Dekorazioan, harria eta egurra dira nagusi. Goierriko artisauen lanak ere ikus daitezke bertan: besteak beste, Matximentako saskigilearen saskiak eta Itsasoko Pott zeramikakoen, aska itxura duen konketa, errotulua, hautsontziak... "Adibidez, ogi mahaia egin egin dugu, zaharrik ez dugulako aurkitu salgai", zehaztu du lazkaotarrak.




ANZIZAR, S. A.



Autoen salmenta

Mekanika eta

elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Iñauti

Hortz Klinika

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO


602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK

ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 **BEASAIN**

☎ 943 88 46 28



MUJIKA

LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 **ORDIZIA**

Ziztu bizian



Ibon Arregi, kart gidari beasaindarra

Ibon Arregi, 20 urteko, beasaindarra automobilismo munduan murgilduta dabil. Hamabi urte zituenetik, kart-etan dabil. Formula Master Juniorrean aritzeko aukera izan du aurten, baina 110.000 euro

bildu ez dituenek, kart-etan jarraitu behar-ko du. Hala ere, mailaz igo da Ibon Arregi, 125 cm³-ko kartarekin ibiliko baita aurtengo denboraldian. Eraitza onekin hasi du gainera denboraldia.

ALDANONDO GARAJEA MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



mazda

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.



“Karting-a, zirkuituetako gidari profesionala bilakatzeko eman behar den lehenengo urratsa da”, zehaztu du Ibon Arregik. Automobilismoaren gailurrera, 1 Formularraino, iristeko bidea edo mailak zeintzuk diren adierazi digu beasaindarrak: Kart-ak, Formula Master Junior (1.600-ko motorrarekin), Formula 3 (2000 cm³-ko motorrarekin); World series eta gero Formula 1.

Formula Master Junior

Ibon Arregik, aurten izan du kart-a utzi eta Formula Masters Juniorrera jauzi egiteko aukera, aurreko denboraldian emaitza onak lortu baitzituen kart-etan. “2006. urtearen amaieran, Madrildik eskaintza jaso nuen: Formula Master Junior txapelketan parte hartzeko. Txapelketa hau 1 Formulako pilotua izandako Emilio de Villotak antolatzen du. Denboraldian zazpi lasterketa izaten dira, eta entrenamenduak ere bai. Beste puntu garrantzitsua bat, Espainiako F3 eta GT txapelketekin bat egiten duela da, honela, ekipoa hauek Formula Juniorreko pilotu gazteen bilakaera jarraitu ahal dezaketelarik, hurrengo denboraldietarako zein hautatu eta zein ez hautatu jakin ahal izateko”.

Maila horretan parte hartzeko, 110.000 euro eskatu zizkioten. “Babesle bila ibili naiz baina ezin izan dut kopuru hori biltzerik lortu. Automobilismo mundua oso garestia da, aurrera jarraitu nahi izateak lasterketa gehiago eta maila altuagokoak korritzera eramatan zaituelako”, azpimarratu du beasaindarrak.

110.000 euro horien barruan, “aurrekontuaren barnean, formularen mantentzearen dagozkion gastu guztiak sartuko lirateke, baita denboraldi osoko asgurua, ingeniari baten kontratua, mekaniko kopuru jakin bat autoa beti puntuan egoteko lasterketa guztietarako, zuzendari tekniko bat, eta nire irakasle bezala jardungo duen pilotu bat”.

Eskaintza hori onartuz gero, Formulako autoarekin ibiliko litzateke, 1600 cm³-ko motorrarekin. “Espainiako zirkuitu handietan korrituko nuke, formulatan”, zehaztu du.

Dirurik ez

Ate asko jo ditu Ibon Arregik Formula autoetara salto egiteko babesle eta diru kopurua lortu nahian. “Baina 14 milioi lortu ez ditudanez, kart-etan jarraitu beharko dut.. Ni izango nintzateke euskaldun bakarra Formula Masters Juniorrean”, kontatu digu penaz beasaindarrak.

Dena den, zirrikituren bat egon omen daiteke: “zenbait kasutan, kartetatik Formula 3-ra zuzenean pasatu liteke. Formula Masterren ez dago denboraldi osoa egin beharrik, pare bat karrera egin litezke. Laguntzaren bat lortuz gero, agian aurten horixe egingo dugu. Eta ondo eginez gero, datorren urtean Epsilonekin saiatu eta ea Formula 3-rekin hasi gaitezkeen”.

Kirol garestia da automobilismoa eta “kirol honekin, denak diruarekin funtzionatzen du. Adinean ere aurrera noa. Gazteagoak, 17 urterekin, dirua daukatenak, hasten dira eta nik 20



Hamabi urtetik

12 urte zituenetik dabil Ibon Arregi beasaindarra, kart autoetan. “Olaberriko karting-eant hasi nintzen. Repsoleko proba bat egin zen. Estatuko mailako lehiaketa zen eta alokairuko kartekin jokatu zen. Erregio bakoitzetik 5 hartuko zituzten, Madrila joango ziren azken proba egitera eta bertan 2 hartuko zituzten. Nik garai hartan ez neukan kart-ik. Izena eman nuen lehiaketan, Cantabriakoak, Asturiaskoak eta Galiziakoak etorri ziren. Ehundik hamazazpigarrena gelditu nintzen. Aitak esan zidan, lehenengo hogeietan sartzen banintz, kart-a erosiko zidala. Eta horrela egin zuen”, gogoratzen du beasaindar gazteak.

Handik aurrera, entrenatzen hasi zen. “Hasieran hobby bat bezala. Ez nuen pentsatzen lasterketetan parte hartzerik”. Dena den, 2002. urtean, lehiaketetan parte hartzen hasi zen. Emaitza onak ikusita, 2005. urtean, serio heldu zion: “dagoeneko ez zen denbora pasa bat baizik eta zerbait profesionalagoa izaten hasi zen nire bizitzan. Horrek denbora gehiago behar izatea eraman ninduen, eta urte osoko asteburu gehienak okupatuak nituen ahalik eta lasterketa gehienetan parte hartu ahal izateko. Ondo hasi nintzen eta Olaberriakoek asko lagundu zidaten, Iñaki Olanok batez ere. Beragatik, bestela seguraski ez nintzatekeen nagoen lekuan egongo”, gaineratu du.

Arraiak parrilan

943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE

SAGARDOLEGIA

GERTU

Inmobiliaria

www.inmogertu.com

San Inazio, 5
20200 BEASAIN
Telf: 943 16 21 92
Fax: 943 88 36 33

A

morrazioa
ematen dizu,
zu baino txarragoa
den bat,
dirua daukalako,
aurrera doala
ikustea

urte dauzkat dagoeneko. Aukerak badaude, baina geroz eta zailagoak. Amorratioa ematen dizu, zu baino txarragoa den bat, dirua daukalako, aurrera doala ikustea". Dena den, ez du etsi oraindik beasaindar gazteak, "datorren urtean ikusiko dugu zer gertatzen den. Zaila dago dena den". Saiatu, saiatuko da aurten ere denboraldi txukuna egiten. "Euskaltekin harremanetan egon naiz eta esan zidaten aurten denboraldi polit bat egingo banu, Epsilon Euskadin egingo nuela denboraldi osoa. Baina nik hurrengo urtea ez nuen behar, aurtengoa baizik".

Euskal Herrian automobilismoan kulturarik ez dagoen galdetu diogu Arregiri: "Oso gutxi, eta dirua bada. Kirolgik adibidez, diru asko ematen du baina goian



240 kilometro orduko

Formula Masters Junior mailako autoaren ezaugarriak hauek dira: 137 zaldidun BMW motorra, 9300 erreboluziotan; abiadura handietan, 240 kilometro orduko; karbonozko fibradun txasisa, Shubal; karbonozko seguritateko muturra; datu hartzailea, Stack erakoa; martxa kanbiodun kaxa sekuentziala; guztira, 405 kilo. Probatua du dagoneko horrelako autoa. "Formulako autoa probatuta daukat, Olaberrin, baina inoiz ez dut karrera bat korritu. Baina ez da berdina Olaberrin edo zirkuitu handi batean probatzea. Sentsazioa ez da horrenbesterako. Ibiltzen da baina badakizu gutxigorabehera zer den. Kart-ak ere sentsazio handia ematen du: horren txikia izanda, horrenbesteko abiadurarekin, beharbada formulak baina sentsazio handiagoa ematen du. Formulak, 220-ko abiadura hartuko du, baina ez da hainbesterako", aitortu du Ibon Arregik. Goi mailako auto gidariak, orduko 300 kilometroko abiaduran ibiltzen omen dira.

dauden kirolariei. Jende askorekin eztabaida handia izan dut eta batzuek arra-

zoia ematen didate. Baina hemen laguntza, gazteok behar dugu. Eta orain ez

badigute ematen, etorkizunean ez gara ezer izango".



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA



125 m³-ko kart-etan

Azkeneko momenturaino zalantzan egon bada ere, azkenean, kart-etan hasi du aurtengo denboraldia Ibon Arregik. Hori bai, mailaz igo da. "Orain arte 100 cm³-koarekin aritu naiz eta aurtun 125-ekoarekin hasi naiz. Ea aurtengo denboraldia ere ondo ateratzen zaidan". Oraingoz behintzat, emaitza onekin hasi da denboraldia.

Ezberdintasun handia al dago?

Bai. Berez, 25 cm³-ko aldea dago bakarrik baina aurtun martxak ditu kart-ak. Nekatu ere askoz gehiago egiten da. Gimnasiora ere joaten gara entrenatzera bestela ez dugu aguantatzen. Jendeak ez daki zenbat nekatzen den kart-etan. Jendeak pentsatzen du, eseri eta kitto dela, baina ikaragarri nekatzen da. Pentsatu, amortiguaziorik ez duela kart-ak, amortiguazioa zure gorputza da, bibrazio guztiak ere gorputzak jasaten ditu. Askok nekatzen da.

Entrenamenduak beraz aldatu egin dituzu?

Orain fuerteaغو entrenatzen dut. Adibidez, karrera 20 minutukoa baldin bada, aurretik ordubete segidan entrenatzen dugu, gelditu gabe, geroko 20ak ondo aguantatzeko. Dena den, entrenamendurik onena, joan eta itzuliak ematea. Karre-ratan ikasten duzu gehiena.

Non entrenatzen duzu?

Olaberriko Karting-ean ibiltzen naiz. Base bat bezala da, kart-a ere han gordetzen dut. Gero lasterketak kanpoan izaten ditugu eta handik mugitzen gara. Orain arte Olaberriko taldearekin ibili naiz eta aurtun talde berria daukat, Aga racing, Bilboko.

Kamioia daukate eta Kataluniara-eta joateko hobeto etortzen zait. Olaberria entrenamenduetarako-eta erraztasun guztiak ematen dizkidate baina lasterketetara joan behar naizenean, ni neroni, erremolkea hartuta joaten nintzen aitarekin edo lehen-gusuarekin.

Non izaten dituzue lasterketak?

Normalean Asturiasen, Cantabrian izaten ditugu, iaz Kataluniara ere joan ginen. Iaz adibidez, Espainiako txapelketa, Andaluzian jokatu zen eta haraino joan ginen. Aurtun, Frantziara joango gara seguruenik. Aurrekontuaren arabera izango da hori noski.

Kirol garestia da kart-a.

Gu ahalik eta gutxien gastatzera joaten gara baina Katalunian badago jendea, aste-buruko, ostiraletik igandera, milioia gastatzen duena. Dirulaguntzak oso gutxi izaten dira. Katalunian zerbait, baina hemen bat ere ez. Katalunian gazte jendeari laguntza ematen diote.

Zenbateko abiaduran ibiltzen zarete?

Arriskatzea gustatzen zaigu. Normalean abiadura ez dugu kontuan hartzen, bakarrik erreboluzioak eta motorra, jakiteko nola doan. Abiadura, 150-160 hartuko dugu. Askok da, babesik ez daukazu... motorean joatea bezala da kasik. Lurretik hiru zentimetrora eserita noa, ipurdiak beroaldi ederra hartzen du! Harriren bat harrapatuz gero...

Kaminoan polikiago ibili beharko zara...

Beharko. Askotan zaila izaten da baina!



Emaitzak

2002 denboraldia:

- ✓ Repsol Racing For Spain sarian klasifikatua.

2003 denboraldia:

- ✓ Euskadiko txapelduna erresistentzia mailan Junior kategorian.
- ✓ Olaberriko karting txapelketako irabazlea.

2004 denboraldia:

- ✓ Euskadiko txapelduna erresistentzi mailan Inter.-A kategorian.
- ✓ 4. sailkatua Euskadiko txapelketan.
- ✓ Asturiasko txapelketa.
- ✓ Neguko Leoneko txapelketa.

2005 denboraldia:

- ✓ Nafarroako txapelduna Inter.-A mailan.
- ✓ Euskadiko txapeldunordea Inter.-A mailan.
- ✓ Asturiasko txapelketa.
- ✓ V. Txapeldunen Kopa Vendrellen (Katalunia)

2006 denboraldia:

- ✓ Nafarroako txapeldunordea Inter.-A mailan.
- ✓ 2. sailkatua La Roca-ko karting-ean (Cantabria)
- ✓ Kataluniako txapelketa.
- ✓ Espainiako txapelketa.
- ✓ Gaztela-Leongo txapelketa.
- ✓ VI. Txapeldunen Kopa Vendrell-en.

Lazkao

Kulturaldia

Kulturaldia prest dago Lazkaon. Bertsoa eta liburua izango dira protagonista. Jarraian duzue egitaraua:

Apirilak 19, osteguna:

Goizean: 'Antzarren XVII. bertso-papere' banaketa, Ikastolan.

20:00etan: Euskal Pen Klub-ak Aita Joan Joxe Agirre-ren lanaren onarpen-ekitaldia, Udaletxeko Areto Nagusian.

Apirilak 20, ostirala:

15:00etan: Gazteentzat bertso-saioa, San Benito Ikastolan: Goierriko Bertso-eskolakoak, Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi.

20:30ean: Bertso-afaria Lazkaomendiko Lartxai Elkartean: Mikel Mendizabal, Bixente Gorostidi eta Iker Zubeldia.

Apirilak 21, larunbata:

11:00etan: Ardo dastaketa ikastaroa, Zaldibiako Zubi Buru elkartean, Mikel Garaizabal enologoaren eskutik.

Apirilak 22, igandea:

12:30ean: Lazkao Txiki gogoan, Lazkao Txiki Zelaian: lore eskaintza, dantzariak, salda, bertsolariak: Mikel Mendizabal, Bixente Gorostidi eta Iker Zubeldia. Lazkao Txiki Musika Eskolako emanaldia. Trikitilariak.

Apirilak 23, astelehena:

Liburuaren nazioarteko eguna:

Egun guztian: Zakukada liburu merke-merke, Gerriko liburutegian.

19:30ean: Liburu aurkezpena: 'Apaizac obeto', Jon Maia. Gerriko liburutegian.

21:00etan: Bidaia baten kronika, Ternuan zehar espedizioa. Jon Maia. Maizpide euskaltegia.

Apirilak 25, asteazkena:

19:30ean: Liburu aurkezpena: '100 razones por las que dejé de ser español', Jose Mari Esparza. Gerriko.

Apirilak 26, osteguna:

21:00etan: Antzerkia: Debako Goaz taldearen 'Kanika zuri-beltzak'. Maizpide Euskaltegia.

Apirilak 27, ostirala:

11:00etan: San Prointziotako eranskailuaren aurkezpena, Gerriko liburutegian atarian.

Segura

Apirilak 22: hazi eta ur bedeinkatzea

Santa Engrazi eguna apirilaren 16an izan bazen ere, igandean, apirilaren 22an, egingo da Santa Engrazi ermitan, eguerdiko 12etan, hainbeste urtez eutsi zaion tradizioa: hazi eta ur bedeinkatzea. Jose Luis Agirretxe apaizak, Mahasti iturriko urari gatzeta bota, bedeinkatu eta, erramu adarrarekin, herritarrek ekarritako haziak eta ura bedeinkatuko ditu. Ondoren, auzoan hildakoen aldeko meza ospatuko da.

Azkenik, Santa Engrazi baserriko Ormazabal sendiak, hamaiketako eskainiko du Udalaren laguntzaz. Tradizioaren arabera, inguruko baserrietakoek, meza dirua eramaten diete Ormazabaldarrei.





zahaizki

Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

Urte guztian zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua



Idiazabal

Maiatzak 6: X. Gazta eguna

Egun handia maiatzaren 6koa izango bada ere, aurretik bada beste hainbat ekitaldi ere.

Maiatzak 3, osteguna:

18:30etan: VIII. Mami lehiaketa. Jubilatuen Elkartean.

19:30etan: Mahai ingurua: 'Betidaniko Latxa: etorkizunerrako ardia'. Pilarrenean.

Maiatzak 5, larunbata:

22:00etan: Aukeran Dantza Konpainiaren eskutik 'Bideak' ikuskizuna, Igarondo pilotalekuan. Sarrera 6 euro. Aldez aurretik Izparren egongo dira salgai.

Maiatzak 6, igandea, X. Gazta Eguna:

10:00etan: Artzainek postuak irekiko dituzte. Gazta debalde dastatzeko aukera izango da. Gazta onena sarituko da, jendearen iritzia kontutan hartuta. Artzainen postu dotoreena sarituko da.

11:00etan: Herriko artzainak gazta egiten hasiko dira, era zahar eta modernoan.

11:30etan: Gazta ketzen eta ardi mozte ikuskizuna, eskuz eta makinaz.



13:00etan: Omenaldia Florentino Goiburu artzainari.

13:30etan: Sari banaketak: postu dotoreenari, gazta onenari.

Arratsaldean: Urrezko aizkoraren kanporaketa.

Ondoren: txaranga ibiliko da herriko kaleetan.

x.gazta
eguna

2007ko
maiatzak 6 igandea

Maiatzak 3, osteguna

18:30etan: VIII.Mami lehiaketa. Jubilatuen Elkartean.

19:30etan: Mahai ingurua: Betidaniko Latxa: etorkizunerako ardia. Pilarrenean.

Maiatzak 5, larunbata

22:00etan: Aukeran Dantza Konpainiaren eskutik "BIDEAK" ikuskizuna, Igarondo pilotalekuan. Sarrera 6 euro (Aldez aurretik Izparren egongo dira salgai).

Maiatzak 6, igandea X. Gazta Eguna

10:00etan: Artzainek postuak irekiko dituzte.

11:00etan: Herriko artzainak gazta egiten hasiko dira era zahar eta modernoan.

11:30etan: gazta ketzen eta ardi mozte ikuskizuna, eskuz eta makinaz.

13:00etan: Omenaldia Florentino Goiburu artzainari.

13:30etan: Sari banaketak: postu dotoreenari, gazta onenari.

Arratsaldean: Urrezko aizkoraren kanporaketa.

Ondoren, txaranga ibiliko da herriko kaleetan.

idiazabal

Oharrak:

Gazta debalde dastatzeko aukera izango da.

Gazta onena sarituko da, jendearen iritzia kontutan hartuta.

Artzaien postu dotoreena sarituko da.

Gaztaia ketzen ikusteko aukera egongo da.

Autobusa jarriko da aparkalekutik herrira gerturatzeko.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Larraitz

Maiatzak 1: Aralarko eguna

Neguan Aralarko larreek atsedena hartu ondoren, maiatzaren 1arekin batera, inguruko herrietako gauduak berriz ere, Aralarko larreetan bazkatzeko aukera izango dute.

Urte batzuk badira, Aralarko larreen irekierako festa antolatzen duela Enirio-Aralar mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuaren eta Aralarko Parke Naturalaren laguntzaz.

Aurtengo egitaraua prest dago dagoeneko:

10:00etan: Trikitilariak.

11:00etan: Zaldi doma erakustaldia Migel Alman-dozekin.

Ondoren: Jaialdia: Nafarroako eta Iparraldeko abeslari taldea; Sarako Xanore eskutik makila-dantza; Alaitz Sarasola eta Bixente Gorostidi bertsolariak eta Mari Jose Sardon harrijasotzailea.

12:00etan: Aralarko larreak irekitzeko etxafuegoa.

17:00etan: Erromeria Triki-Jazband bikotearekin.

Goizean zehar, abere erakusketak, eskulangintza saioak eta bertako produktuen salmenta izango dira.

Gabiria

Maiatzak 6an, Goierriko Eskola txikien festa

Zerain, Itsasodo, Olabe-
ria eta Gabiriako esko-
lek, 'Goierriko eskola
Txikien' ospatuko dute
maiatzaren 6an. Aurten,
Gabiriako Balantzategi
eskolako guraso elkarte-
ari egokitu zaio festa an-
tolatzea. Datorren urtean
Goierriko eskola txikien eguna Itsasondon antolatuko
dute eta testigua beraiei emango diete. Jarraian duzue
prestatu duten egitaraua:

11:30ean: Ongi etorria plazan.

Ondoren: Herri jolasak, jokoak, eta erakusketa
(abarka eta gaztaren egite prozesua).

13:45ean: Guraso eta haur guztien argazkia.

14:00etan: Bazkaria.

16:30ean: Pailazoak: Poxpolo eta Mokolo.

17:30ean: Txokolate beroa.

Ondoren: Eskola txikien irudiaren jaurtiketa puz-
garri bidez.



SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierri** 25 euro Egin ☒ bat ☐ **hitza** 62,5 euro
aukeratutako kaxan

☐ **Goierri** + ☐ **hitza** 67,5 euro

Bidali txartel hau helbide
honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7
behea, Beasain

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

berriz

Kale Nagusia, 8
BEASAIN

Hondarribi, 25
Hondarribi, 30
DONOSTIA



**ZEGAMA
OKINDEGIA**

Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretx:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

A large photograph of the Barandiaran Zeramikak store at night. The building has a prominent neon sign that reads "BARANDIARAN" and "zeramikak". Below the main sign, there are smaller signs for "ERREF. MAK", "DISEINUAK", "PROIEKTUAK", "BAINUAK", and "HIDROMASAJ". The store is illuminated from within, showing various ceramic products.

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Hiru neska euskaldunek alokairuan pisua nahi dute. 628654250.

salgai

Ataun. Dena berritutako etxebizitza. 2 logela, egongela, sukalde ekipatua, bainugela eta trastelekua. Sartzeko. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasain. Hiru eta lau logelatako etxebizitza. Sukalde hornitua, egongela, bainugelak, trastelekua eta terrazarekin. Igogailua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasainen, erdigunean, berritutako apartamentu polita salgai. Sartzeko prest. 180.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Ezkio-Itsaso. 50 pisuren promozioa. 85 m² erabilgarriak. 3 logela, sukaldea, 2 bainu, jangela eta egongela. Norbere berogailua. 39,7 milioitik hasita. GUNE. 943037975.

Idiazabalen, berritzeko apartamentu eder bat. INMO F3 943164936 - 629417171.

Idiazabal. Eraikuntza berriko etxebizitzak. Bi eta hiru gelak eta duplexak. Garajeak eta lokal komertzialak. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Idiazabal. Berritzeko bi apartamentu salgai. 108.000 eurotik aurrera. INMO F3 943164936 - 629417171.

Lazkao. San Prudentzian, 3 logela, egongela, sukaldea, bainua eta bi balkoi. Dena kalera begira. 210.500 euro. 658708459 / 667074392.

Legazpi. Domingo Agirre. Sukalde, 3 logela, bainua, egongela, trastelekua, ganbara. Dena altzari hornitua. 38 milioi. GUNE. 943037975.

Legorretan, eraikuntza berriko bi etxe eder salgai. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorretan, etxe adosatua, estreinatzen. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorretan, etxebizitza ederra, eguzkitsua, igogailua.

216.365 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorreta. 90 metroko etxebizitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailua eta trastelekua. Dena kanpoaldera. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Ormaiztegi. Hiru logela, egongela, sukalde hornitua eta bainugelak. Igogailua, trastelekua eta garajea. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Segura: eraberritutako etxebizitzak. Bi eta hiru logela, egongela, sukalde ekipatua eta bainugela. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Segura. Eraikuntza berriko etxe adosatua. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugelak. Garajea, terraza eta lorategiarekin. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Urretxu. Iparragirre. 2 logela, sukaldea, egongela, bainua, trastelekua. Argitsua. 29 milioi. GUNE. 943037975.

Zumarraga. San Gregorio. 3 logela, bainua, sukaldea, egongela,

jangela. Dena kanpora. Igogailua. Ezin hobeto. Informazio pertsonala. GUNE. 943037975.

Zumarraga, Secundino Esnaola. 3 logela, sukaldea, jangela-egongela, bainua eta trastelekua. 110 m². Igogailua. 55 milioi. GUNE. 943037975.

Altsasun, familiabakarreko etxeak salgai. 179 m² erabilgarri. Sukalde hornitua. Lorategia, garaje bikoitza eta aurrerakuntza domotikoekin. 319.000 euro. Abuzturako bukatuta. 649463289.


Donostian, Artzain Onaren ondoan, etxebizitza bezala prestatuko lokala salgai. Guztiz erreformatua. 38 m². Aire egoitua. 619488642.

Ezkarain, eraikuntza berriko duplexa. Sukalde, egongela, 2 logela eta bainugela. Kanpoaldera. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

AGNES IRIGOYEN PODOLOGOA

Elkargo kide zbk 230

Astelehenerdik
ostiralera:
9:30etik
18:00etara



Tel.: 943 086 925
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07



A SEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

IÑAKI ARIN Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20
BEASAIN

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

LANA

eskaerak

Garbitzailea behar da Lazkaomendiko elkartean. 649244401.

Lazkaoko okindegi baterako pertsona bat behar da. 943885500 (8:00-14:00).

Goierriin mekaniko bat behar da kotxe tailer batean. 670285995.

Laguntzailea behar da asteburuetan Beasaingo ileapaindegiri baterako. 943881442.

Zerbitzaria eta sukaldarako langilea behar dira asteburuetan jatetxe batean lan egiteko. 606503777.

Urretxuko Ederrena tabernan pertsona euskalduna behar da arratsalde eta asteburuetarako. 638843857.

Jatetxe baterako zerbitzari euskalduna behar da. Egutero lana egiteko. 943880044.

Idiazabalgo Nekazari koope-ratiban arratsaldean lana egiteko pertsona bat behar da. 943187669.

Lazkaoko taberna batean langile bat behar da. 606435022.

Emakume bat behar da ontziak garbitzeko jatetxe batean. 943187319.

Jatetxe berri baterako 4 zerbitzari behar dira. Lan kontratua eta baldintza onak. 685794755.

eskaintzak

Neska lan bila dabil. Zerbitzaria, garbiketa... 650766630.

25 urteko neska eskaintzen da dendari bezala lan egiteko. Bi urteko esperientzia. 638843869.

Emakume batek Goierriin orduka lan egingo luke. Garbiketa lanak, adinekoak zaindu... 605702410.

Neska eskaintzen da hurrengo lanetarako: garbiketa, pertsonen zaintza, apal-betetzaile... 676924285.

Antzuolan tarota irakurtzen da. 943766214.

Etxeko lanak egiteko edo gaixoak zaintzeko esperientzia-dun emakumea eskaintzen da. 652701620.

Goierritarrako iragarki laburrak:

hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info
gh@goierrikohitza.info

BESTELAKOAK

salgai

Egurrezko mahai handi sendoa salgai. Aulkiekin. Prezio onean. 690311342.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

IBILGAILUAK

salgai

Renault Express salgai. SS-AV. ITV-a pasata. 620036749.

Citroen ZX salgai. 1.6 i, SS-AM. 190.000 km. Egoera onean. 900 euro. 679745384.

Mercedes Vito salgai. Ekibatua. 75.000 km. 636979154.

GALDUTAKOAK

Lorua galdu da Beasainen, grisa eta isats gorria. 943085102.

ANIMALIAK

opari

2 asto salgai, biak 400 euro. 943180388.

3 urteko setter ingelesa oparitzen da. 659219237.

GARAJEAK

salgai

Beasainen, Lizeo inguruan, 13 m²-ko garaje itxia salgai. Aukera paregabea. 645705287.



irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
Beasain

943 160 120
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA
IKASKETA TEKNIKAK
UNIBERTSITATE-MAILA





BAINUKO OSAGIAK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



AHOLKULARITZA



www.etxekin.net

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behe
ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



Lazkaoko Ondarre-Txiki etxeko sendia 1900. urtean

Argazki honetan Murua Izagirre sendia agertzen da, aitona-amonak, gurasoak, izeba ea 3 seme-alaba. Sendi hau 1910. urtera arte egon zen Lazkaon, urte horretan Gabiriako Izar-Haundi baserrira joan ziren.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Juana Murua Lasa (izeba, monja Amerikara joan zen) eta Juan Migel Murua Lasa (aita, izatez Brinkolako Zubitxoeta baserrikoa).

Erdiko ilaran: Ana Frantziska Lasa Arregi (amona, izatez Arriarango Lupasketa baserrikoa), Mateo Murua Mendi-zabal (aitona, izatez Beasaingo) eta Paulina Izagirre Zunzunegi (ama, izatez Lazkaoko Enparandegi baserrikoa).

Behoko ilaran: Ana Murua Izagirre (1896an jaioa), Gabino Murua Izagirre (1894an jaioa) eta Natibidad Murua Izagirre (1898an jaioa).



**Sanperio
kalea
ORDIZIA**

OKINdegia-kafetegia

Ogi berria
egun guztian
zehar

Bertako produktu naturalak:
urdaï azpikoa, saltxitxoia...
jogurtak, esnea...

**Baserriko
produktuekin
egindako
gosariak**

ainaraetxeberria

HANKARA

podologia zentroa

Etxe

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

San Benito ikastola

KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA

- Ikasleak ezagutzen ditugu.
- Tutoritza eta orientazio pertsonalizatuak.
- Irakasle talde finko eta konprometitua.
- Emaizta onak.

Izen-emate epea:
Apirilaren 23tik
Maiatzaren 4ra

Garraioa
Jargela

BATXILERGOAK

- Zientifiko-Teknikoa
- Humanitateak
- Osasun Zientziak
- Gizarte Zientziak



www.sanbenitoikastola.net

Tel. 943880800 Emaila: lazkao@ikastola.net LAZKAO



OIANGUREN BHI ORDIZIA

Altamira auzoa z/g
Tlfnoa.: 943 880 862
www.oianguren.net



OIANGUREN INSTITUTUA

BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Natur eta Osasun zientziak



- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: apirilaren 23tik maiatzaren 4ra



Goierri Lanbide Eskola
La granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2007-08 eskaintza

Zurekin etorkizuna landuz

LANBIDE-HEZIKETA

Goi mailako zikloak:

- Administrazioa eta Finantzak
- Eraikuntza metalikoak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Industria-ekipoen mantenimendua


Erdi mailako zikloak:

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

Lanbide hastapenak:

- Autoen mekanika, Iturgintza, Txapa eta pintura, Sukaldaritza

Lan praktikak eta lan burtsa: Laneratze tasa %95



Aurre inskripzioak: Ekainaren 1etik 7ra

Ate irekien eguna: Maiatzak 12, goizeko 9etatik 12:30era

